



## DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2016

### LEHENDAKARITZA

1. Gobernu Irekia / Open Government arloko profesionalak espezializatu eta prestatzeko bekak .....	2
2. Kanpo harremanetarako eremuan profesionalak espezializatzeko bekak.....	3
3. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Larrialdiko eta Ekintza Humanitarioetarako Laguntzen deialdia .....	4
4. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren garapenerako lankidetzaproiektuetarako laguntzen deialdia .....	6
5. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren euskal lankideentzako laguntzen deialdia .....	8
6. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren proiektuetan parte hartzen duten borondatezko lankideei bekak emateko deialdia, betiere Nazioarteko Erakundeek herrialde txirotuetan garatzen dituzten garapen proiektuetan parte hartzen duten lankideak badira .....	9
7. Garapenerako lankidetzahitzarmenak .....	10
8. Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak garatzeko diru-laguntzak .....	12
9. Herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin Bonuen programa.....	13
10. Tokiko bizikidetzaren esparruan elkarrekin bonuen programa .....	14
11. Hezkuntza arloko elkarrekin bonuen programa.....	15
12. Memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko diru-laguntzak .....	16
13. Terrorismoaren biktimei arreta eta babesa ematea bultzatzen duten erakundeentzako diru-laguntzak .....	17
14. Bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatzen dituzten erakundeek eta gizarte mugimenduei diru-laguntzak .....	18



1.- Izenburua

**Gobernu Irekia / Open Government arloko profesionalak espezializatu eta prestatzeko bekak**

2.- Araua

Maiatzaren 20ko 78/2014 Dekretua

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programa honen helburua izan da formazioa eta espezializazioa Gobernu Irekia, partaidetza eta kazetaritza digitalaren arloetan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Bekak hainbat urtetarako dira. Hasiera 2016ko apirilean izan da eta 2017ko hilabete berean bukatuko dute. Hori dela eta, oraindik ezin dira emaitzak aztertu.



## 1.- Izenburua

**Kanpo harremanetarako eremuan profesionalak espezializatzeko beka**

## 2.- Araua

171/2011 DEKRETUA, uztailaren 26koa, kanpo harremanetarako eremuan profesionalak espezializatzeko beka arautzeko.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Beka arautzen dituen Dekretuaren helburua espezializazioa eta kanpo harremanetarako esparruan profesionalen heziketa bultzatzea da.

Bekaren onuradunek bete behar dituzten baldintzak honako hauek dira: administrazio egoitza Eusko Autonomia Erkidegoan edukitzea beka deialdia baino lehenagotik, edo ofizialki onartutako Euskal Etxe bateko bazkide izatea; gutxienez unibertsitate ikasketak edo gradu ikasketa baliokideak edukitzea eta beka deitzen diren urteko urtarilaren 1ean gehienez 30 urte edukitzea.

Beka hauen onuradunen espezializazioa eta heziketa Vitoria-Gasteizen burutuko da eta kanpoko Euskadiko ordezkarietan edo haien menpeko bulegoetan.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

- 2016an 8 beka deitu ziren 2016-2017 aldirako eta 8ak eman ziren, bat bera ere ez zen hutsik gelditu.

- 2016-2017 ariketarako emaitzei buruz ezin dugu azkeneko balorazio bat egin, beka 2017ko abenduan bukatuko baitira. Hala ere, bai azpimarratu genezakeela 2015-2016 beken amaieran beka emandako pertsonen galdeketa egin zitzaizela, galderak honako hauek izan ziren:

- Esleitutako beka bakoitzeko gogobetetasun-maila ..... 8,0
- Joan zaren ikastaro, jardunaldi eta mintegiekiko gogobetetasun-maila ..... 7,4
- Bekaren garapenean lortutako ezagutzeko gogobetetasun-maila ..... 7,7
- Datu-baseei dagokienez lortutako ezagutzei buruz gogobetetasun-maila, informazio-iturriak, etab., Kanpo Harremanetarako eta Europako Gaietarako esparruetan ..... 8,0
- Kanpo harremanetarako eremuan (Kanpo Harremanak eta Europako Gaiak) lana aurkitzeko prestatuago zaudela uste duzu ..... 7,8



## 1.- Izenburua

**Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Larrialdiko eta Ekintza Humanitarioetarako Laguntzen deialdia**

## 2.- Araua

31/2008 Dekretua, otsailaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren kargurako ekintza humanitariotarako laguntzak arautzen dituena.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Hondamendi naturalen edo gatazka armatuen ondoriozko krisialdi humanitarioei erantzutea da deialdiaren xedea. Laguntzen deialdia bi finantzaketa-linearen bitartez egiten da:

1) Finantzaketa iraunkorreko linea, PRE: Deialdia zabalik egongo da larrialdietan laguntzeko proiektuetarako eta ekintza humanitarioko proiektuetarako zuzkidura (4.900.000 €) agortzen den arte:

- Larrialdietan laguntzeko proiektuak: Hondamendiek eragindako pertsonen biziraupena bermatzeko eta sufrimendua arintzeko oinarrizko ondasun eta zerbitzuen premiazko hornidurara bideratzen dira. Gehienez 6 hilabeteko iraupena izango dute (beste 6 hilabetez luzatzeko aukerarekin); gehienez 200.000 euroko diru-laguntza jasoko dute eta ez da baterako finantzaketarik behar izango.
- Ekintza humanitarioko proiektuak: Jarduerak premia hain handia ez dutenean eta garapenerako, giza eskubideetarako eta bakea eraikitzeko oinarriak sustatu nahi dituztenean. Gehienez 12 hilabeteko iraupena izango dute (beste 12 hilabetez luzatzeko aukerarekin); gehienez 200.000 euroko diru-laguntza jasoko dute eta beste finantzaketa-iturri batzuetatik lortu beharko dute, gutxienez, aurrekontuaren guztizkoaren % 20.

2) Ekintza humanitarioko estrategia-markoak. Eremu humanitarioan espezializatutako euskal erakundeentzako norgehiagoka-prozedura bidezko deialdia ekintza humanitarioko proiektuetarako.

Aurrekoetan ez bezala, estrategia-markoetan iraupen, aurrekontu eta eragin handiagoko ekintzak txerta daitezke. Gehienez 24 hilabeteko iraupena izango dute (beste 6 hilabetez luzatzeko aukerarekin); gehienez 800.000 euroko diru-laguntza jasoko dute eta beste finantzaketa-iturri batzuetatik lortu beharko dute, gutxienez, aurrekontuaren guztizkoaren % 20.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Linea iraunkorrerako 33 eskaera jaso ziren (ekintza humanitarioak 22 ziren eta 11 larrialdiko)



laguntzetarako), eta haietatik 28 laguntza eman ziren; eta ekintza humanitarioko estrategia-markoetarako 6 eskaera jaso ziren, haietatik 3 eman ziren.

Aurrekontu-programan aurreikusitako magnitudea 3 laguntzakoa izan zen bi lineen kasuan; beraz, aurreikusitako helburua bete da, ongi bete ere.

Diruz lagundutako proiektu horien bitartez, hondamendiek eta krisialdi humanitarioek eragindako pertsonei babesa, edateko ura, elikagaiak eta laguntza sanitarioa eskaini zaie; halaber, hondamendi ostean prebentzioko, arintzeko eta errehabilitazioko ekintzak, bakea eraikitzeko ekintzak eta giza eskubideak babesteko ekintzak ere egin dira hainbat herrialdetan: Palestina, Sahara, Irak, Siria, Jordania, Liberia, Mozambique, Hego Sudan, Angola, Kenya, Etiopia, Kongoko Errepublikak Demokratikoa, Filipinak, Ekuador, Paraguai, Bolivia, Nikaragua, Costa Rica, Honduras eta El Salvador.



## 1.- Izenburua

**Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren garapenerako lankidetzaproiektuetarako laguntzen deialdia**

## 2.- Araua

34/2007 Dekretua, otsailaren 27koa, Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituena, eta dekretu hori aldatzen duen uztailaren 23ko 390/2013 Dekretua.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren bitartez, zuzkidura 30.000.000 eurokoa izan zen, lankidetzako euskal politikaren kalitatea finkatzen eta hobetzen laguntzen da, gizarte-eraldaketako, egiturazko pobrezia desagerrarazteko eta giza garapen iraunkorra sustatzeko helburuak garatzearen. Hona hemen laguntzen modalitateak:

- Garapen-lankidetzarako proiektuetarako laguntzak (I. kapitulua, 24.600.000 euroko zuzkidura). Hegoaldeko herrialde pobretuetako pobrezia aurkako borrokan sartzen diren garapen-ekimenetarako laguntzak, EAEko eta tokiko irabazi-asmorik gabeko garapenerako lankidetzarako erakunde bitartez. Modalitate honetako garapen-lankidetzarako proiektuen bitartez, proiektuak gauzatzen diren herrialde eta eskualdeen prozesu endogenoak eta gaitasunak indartzen dira. Tokikoari lehentasuna ematen zaio, estatukoari eta nazioartekoari loturik.
- Produktzio-garapenerako, eta prestakuntza eta laguntza teknologikoko proiektuetarako laguntzak (II. kapitulua, 900.000 euroko zuzkidura). Produktzio-garapenerako, eta prestakuntza eta laguntza teknologikoko proiektuei emango zaizkien laguntzak. Proiektu horiek herrialde pobretuetako pobrezia kontrako borrokaekin zuzenean lotuta daude. Ekintzak Hegoaldeko herrialdeetan edo Euskadin egin daitezke. Azken kasu horretan, erakundeek ez dute tokiko bazkiderik izan behar.
- Garapen-hezkuntzarako proiektuetarako laguntzak (III. kapitulua, 4.500.000 euroko zuzkidura). Euskal Autonomia Erkidegoan garapenerako hezkuntza-proiektuetarako laguntzak, irabazi-asmorik gabeko euskal erakunde bitartez. Linea honetako proiektuak epe ertain-luzeko hezkuntza-proposamenak dira, eta EAEko herritarrei prestakuntza ematea dute xede, munduan dauden ezberdintasunak eragiten dituzten egiturazko arazoak ulertzen eta egun nagusi diren garapen-ereduak aldatzeko konpromisoa hartu eta inplika daitezkeen.



4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira 211 eskaera (162 garapen-lankidetzaren modalitatean, 4 produkzio-garapenaren eta prestakuntza eta laguntza teknologikoaren modalitatean, eta 45 garapen-hezkuntzaren modalitatean).

Jasotako eskaeren artetik 83 proiekturi laguntzea onartu zen, eta honela banatzen dira modalitateen arabera:

- 55 proiektu garapen-lankidetzaren modalitatean; guztira, 24.308.037,63 euro. Proiektu horien % 21,91 Afrikarako laguntzetara bideratu zen; % 4,17 Asiarako laguntzetara; % 36,51 Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Kariberako laguntzetara, eta % 34,65 Hego Amerikarako laguntzetara.
- 3 proiektu produkzio-garapenaren eta prestakuntza eta laguntza teknologikoaren modalitatean, Bolivian, Kuban eta Euskadin.
- 25 proiektu garapen-hezkuntzaren modalitatean, Euskadin egitekoak eta, batik bat, euskal herritarrei pobreziaren eta desberdintasunen arrazoiekin lotutako prestakuntza eta sentsibilizazioa eskaintzera bideratutakoak.

Aurrekontu-programan aurreikusitako magnitudea 90 laguntzako izan zen laguntzen hiru modalitateetarako. Hiru modalitateetarako 83 proiektu onartu direnez, proposatutako magnitudearen % 92,2 bete da. Horri dagokionez, nabarmendu behar dugu egindako kalkulu hori aurreko urteko deialdian eskatutako batez besteko zenbatekoan oinarritzen zela, eta zenbateko hori aldatu egin daiteke urtetik urtera.

Diruz lagundutako proiektu horien bitartez, gizartea eraldatzeko jarduerak bultzatu dira bai hegoaldeko herrialdeetan, bai Euskadin, honako arlo hauetan: tokiko garapen ekonomikoa, emakumeen ahalduntzea, gobernantza demokratikoa eta tokiko boterea indartzea, ingurumena zaindu eta babestea, eta giza eskubideak sustatzea.



## 1.- Izenburua

**Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren euskal lankideentzako laguntzen deialdia**

## 2.- Araua

124/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa, Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren pentzutari borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautzen duena, eta hori aldatzen duen urtarrilaren 10eko 2/2006 Dekretua.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren bitartez, borondatezko euskal lankideen irudia sendotzen eta onartzen da pobrezari aurka egiteko lan egiten duten tokiko entitateak eta erakundeak sendotzeko lanetan. Borondatezko lankidetzak izango da herrialde pobretuetan tokiko erakundeetako prozesuak indartzen urtebete gutxienez eta bi urte gehienez ere parte hartzen duena. Aldi horretan, gizatasuna eta profesionaltasuna eman eta horren ordainetan lansaria jasotzen badu lan-harremanaren esparruan.

Laguntzetara bideratutako zuzkidura 150.000 euro izan zen guztira, eta diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 18.000 euro urtean, gutxienez urtebetez eta gehienez bi urtez. Zenbateko hori eskaeraren aurrekontuko guztizkoaren % 75 izango da, gehienez.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira 10 eskaera jaso genituen eta eskaera horietatik 6 laguntza onartu ziren Kolonbian, El Salvadorren, Bolivian, Indian, Brasilen eta Dominikar Errepublikan jardunean ari diren lankide profesionalentzat. Hortaz, aurrekontu-programan ezarritako magnitudea % 100 bete da.

6 laguntza horien bitartez, lankideek erakundeen tokiko gaitasunak indartuko dituzte honako sektore hauetan: hezkuntzan, kooperatibismoan, genero-ikuspegia txertatzen, proiektuak formulatzeko eta kudeatzeko gaitasunetan eta indigenen komunikazioan, besteak beste.





## 1.- Izenburua

**Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren proiektuetan parte hartzen duten borondatezko lankideei bekak emateko deialdia, betiere Nazioarteko Erakundeek herrialde txirotuetan garatzen dituzten garapen proiektuetan parte hartzen duten lankideak badira**

## 2.- Araua

22/2007 Dekretua, otsailaren 13koa, Nazio Batuen sistemako Nazioarteko Erakundeei eta haiei lotutako pertsona juridikoentzako laguntzak arautzen dituena. Helburua: Nazioarteko Erakunde horiek herrialde txirotuetan garatzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten borondatezko lankideei bekak ematea (2007ko martxoaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 50. zk.).

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Beka-deialdi honen bitartez, Nazio Batuek herrialde txirotuetan duten sistemari atxikitako nazioarteko erakundeetan Euskadiko gazte profesionalak txertatu nahi dira. Bekak 12 hilabeteko iraupena izango du, beste 12 hilabetez luzatzeko aukerarekin.

Laguntzetara bideratutako zuzkidura 300.000 euro izan zen, guztira. Hautagai bakoitzaren oinarrizko zuzkidura 18.000 euro izan da (borondatezko lankidearen konpentsazio ekonomikoa, aseguruen gastuak eta garraio-gastuak estaltzeko) eta beste gastu batzuk ere finantzatu ziren: agentzia multilateralen arloko prestakuntza berezian izandako gastuak –prestakuntza hori entitate eskatzaileek emango dute-, eta entitate eskatzaileek kandidaturak aurrez aukeratzeko eta beken jarraipena egiteko izandako kudeaketa-gastuak.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

25 eskaera jaso genituen eta eskaera horietatik 16 laguntza onartu ziren El Salvadorren, Palestinan, Ekuadorren, Kuban, Bolivian, Costa Rican, Kolonbian, Txilen, Uruguain, Namibian, Mauritanian, Iranen eta Dominikar Errepublikan jardungo duten borondatezko lankideentzat. Hortaz, aurrekontu-programan ezarritako magnitudea % 100 bete da.

16 laguntza hauen bitartez, borondatezko lankideak Nazioarteko Erakundeen –hala nola, NBE Emakumeak, FAO, UN-Habitat, UNESCO eta UNICEF– programetan parte hartzen ari dira eta, besteak beste, haurren eskubideekin, genero-berdintasunarekin, elikagaien segurtasunarekin, kultura eta ondarea sustatzearekin lotutako lanak egiten dituzte.



## 1.- Izenburua

**Garapenerako lankidetzeta-hitzarmenak**

## 2.- Araua

Garapenerako Lankidetzari buruzko Legearen (otsailaren 22ko 1/2007) 9.3 artikulua (2007ko martxoaren 8ko EHAA, 48. zk.)

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

2016. urtean bederatzi hitzarmen sinatu dira:

1. Hitzarmena UPV/EHUko Hegoa - Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenari buruzko Azterlanen Institutuarekin, Euskadiko garapenerako lankidetzaren gizarte-egiturako erakundeen, antolakundeen eta pertsonen gaitasunak indartzeko honako hauen bitartez: graduondoko prestakuntza espezializatua, informazio eta dokumentazio zientifiko eta dibulгатzaile eguneratura sarbidea eta Hegoak egiten duen ikerketa eta aholkularitza-lana. 446.626,33 euro.
2. Hitzarmena Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuarekin, Latinoamerikako lider indigenen eta haien antolakundeen gaitasunak indartzeko herri indigenen eskubideak defendatu eta sustatzeko tresna eta mekanismo nagusien erabilpenean. 252.975,00 euro.
3. Hitzarmena Euskal Fondoa – Tokiko Euskal Erakunde Kooperanteen Elkartearekin, Euskadiko erakunde publikoen eta Saharako agintarien arteko koordinazioa sustatzeko, Euskal Fondoa elkarteko Sahara Koordinazio Unitatearen (SKU) bitartez, arlo humanitarioko elkartasunaren, giza eskubideen zaintzaren, sentsibilizazio-jarduereen eta abarren efikazia hobetzearen mesedetan. 157.537,98 euro.
4. Hitzarmena Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoko (SAED) Lagunen Elkartearekin, Tindufeko (Aljeria) kanpamenduetan errefuxiatutako sahararren ongizatea hobetzeko eta autodeterminazio-eskubidearen aldarrikapenean, giza eskubideen defentsan eta laguntza humanitarioan Saharako herriari laguntzeko, Sahararen Euskal Herriko Ordezkaritzaren Bulegoa indartuz. 156.193,55 euro.
5. Hitzarmena Nazioarteko Bake Brigadekin, Mexikon, Guatemalan, Hondurasen eta Kolonbian giza eskubideak era baketsuan defendatzen dituzten pertsona, komunitate, erakunde eta gizarte-mugimenduen lan-eremua babesteko nazioarteko komunitatearen eginkizun aktiboaren bidez. 200.000,00 euro.
6. Hitzarmena Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna – Bizkaia (EHNE-Bizkaia) sindikatuarekin, 2017an Derion (Bizkaia) egitekoa den La Vía Campesinaren Nazioarteko VII. Konferentzia prestatzen laguntzeko; konferentziaren helburua nazioarteko baserritar-



mugimendua sendotzea eta elikadura-subiranotasunaren inguruan alternatibak eratzea da. 125.000,00 euro.

7. Hitzarmena Munduko Nekazaritza Foroa (MNF) Garapenerako Elkartearekin, Familiako Nekazaritzaren Batzorde Nazionalen Mundu Sarea (CCNNAF) sendotzeko; sarea Asiako, Latinoamerikako eta Karibeko, Afrikako eta Europako 40 batzordek baino gehiagok osatzen dute, eta guztiak ere familiako nekazaritzaren aldeko politika publikoak hobetzeko elkarrizketa politiko nazionalerako plataformak dira. 20.000,00 euro.
8. Hitzarmena Garabide elkartearekin, hizkuntzak biziberritzeko gidaren ikaskuntza intentsiboaren aditu-titulua finantzatzeko. 95.658 euro
9. Hitzarmena Euskal Elizbarrutietako Misionak erakundearekin, Ekuadorreko Los Ríos-eko Misionaren sustatzaile izandako Bittor Garaigordobil jaunari buruzko dokumental bat egiteko. 20.000 euro.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Plangintza estrategikoan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak honako helburu hauek finkatu ditu hitzarmenatarako: nazioarteko gizarte-mugimenduak (bereziki, baserritar-mugimendua eta mugimendu feminista) indartzea; multilateralismo aktibo berria eratzen laguntzea; erakundearteko koordinazioa sendotzea; euskal agenteen gaitasunak indartzea eta giza eskubideen arloko salaketa, gorabehera eta sustapenarekin lotutako ekimenak babestea.

Ikus daitekeenez, 2016ko hitzarmen guztiak lagungarri izan dira tresna honetarako proposatutako helburuak betetzeko eta hasieran bederatzi hitzarmen aurreikusi baziren ere, azkenean bederatzi sinatu ditugu.



1.- Izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak garatzeko diru-laguntzak**

2.- Araua

EBAZPENA, 2016ko otsailaren 17koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak diruz laguntzeko bideratutako laguntzetarako deialdia, 2016. urterako

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta gainerako tokiko erakundeei laguntzak ematea giza eskubideen, bakearen eta bizikidetzaren arloan programak eta ekimenak egin ditzaten.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 91 proiektu diruz lagundu dira; proiektuok 62 udalerritakoak dira, 5.000 biztanle inguru hartzen dutenak.



1.- Izenburua

**Herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin Bonuen programa**

2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena.

EBAZPENA, 2016ko martxoaren 23koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin Bonuak Programaren 2016ko deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen xedea da Herritarren parte-hartzearen Elkarrekin Bonuak programaren 2015eko deialdia egitea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 51 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 12 erakundek aurkeztu dituzte.



1.- Izenburua

**Tokiko bizikidetzaren esparruan elkarrekin bonuen programa**

2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena.

EBAZPENA, 2016ko irailaren 6koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, tokiko bizikidetzaren arloko Elkarrekin Bonuak Programaren 2016rako deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen xedea da Tokiko Bizikidetzaren Esparruan Elkarrekin Bonuak programaren 2016ko deialdia egitea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 16 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 12 erakundek aurkeztu dituzte eta 11 udaletxetan egin dituzte.



1.- Izenburua

**Hezkuntza arloko elkarrekin bonuen programa**

2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena.

EBAZPENA, 2016ko martxoaren 23koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, hezkuntza-  
arloko Elkarrekin Bonuak Programaren 2016ko deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen xedea da hezkuntza-arloko Elkarrekin Bonuak programaren 2016ko deialdia egitea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 177 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 18 erakundek aurkeztu dituzte eta 138 eskolatan egin dituzte.



1.- Izenburua

**Memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko diru-laguntzak**

2.- Araua

EBAZPENA, 2016ko otsailaren 17koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko diru-laguntzetarako deialdia egiten duena 2016. urterako.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan, memoria historikoa eta balio demokratikoak berreskuratu, zabaldu eta ezagutzeko proiektuak zein 1936-1977 aldian demokraziaren eta askatasunaren alde egindako lana zabaldu eta ezagutzeko proiektuak egiteko laguntzak ematea pertsona juridiko pribatu eta irabazi-asmorik gabekoei.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 52 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak. Proiektuok 37 elkarterenak ziren, eta, gutxi gorabehera, 3.000 hartzaile izan dituzte.





#### 1.- Izenburua

**Terrorismoaren biktimei arreta eta babesa ematea bultzatzen duten erakundeentzako diru-laguntzak**

#### 2.- Araua

5/2016 DEKRETUA, urtarrilaren 26koa, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten elkarteentzako eta erakundeentzako laguntzak arautzen dituena.

EBAZPENA, 2016ko apirilaren 21ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinak 2016. urteko laguntzetarako deialdia egiten baitu terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzako, EBAZPENAK, 2016ko maiatzaren 18koak, zuzenduta.

#### 3.- Diru-laguntzen programen azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da, hain zuzen, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko programaren aplikazio-eremuarekin zerikusia duten antolakunde pribatuen proiektuak eta jarduerak sustatzea. Kasu honetan, eta antolakunde horiek egin nahi duten jarduera integratzailea garatzeko dauden premia ekonomikoez jabetuta, laguntzak ezartzen dira kalte pertsonalak sortu dituzten ekintza terroristen biktimei laguntza, babes humanoa eta laguntza psikosoziala emateko jarduerak sustatzeko, argiro lehenetsiz ohiko laguntza, laguntza psikosozial eta morala, talde-terapiak, eta abarretatik bereizten diren antolakundeen programak eta jarduerak.

#### 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 39 proiektu diruz lagundu dira, 20 elkartek aurkeztuak, eta 260.000 euro banatu dira.



1.- Izenburua

**Bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatzen dituzten erakundeei eta gizarte mugimenduei diru-laguntzak**

2.- Araua

EBAZPENA, 2016ko otsailaren 17koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatzen dituzten erakundeei eta gizarte-mugimenduei laguntzak emateko deialdia 2016. urterako.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa honen helburua da diru-laguntzak ematea pertsona juridiko pribatu irabazi-asmorik gabeei, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatu ditzaten gure autonomia-erkidegoan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 187 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 81 erakundek aurkeztu dituzte. Diruz lagundutako jarduerak 7.000 inguru izan dira.